

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/1/18 | 376

- Garbiñe Biurrun eta Joxe Agustin Arrieta
- Hizkuntza aniztasuna gizarteratzea helburu
- Txolarre Irratiaren IV. Bertso Saioa
- Zintzilik: Kimutx
- Kultura: Uxue Alberdi

elikadura
burujabetza

Antton Izagirrekin solasean


hirukide
943 673 948
www.hirukide.org
hirukide@hirukide.org

10 urte
bizitza zabalduz



TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



telefonoa
943651063
webgunea
www.samaniego-tolosa.com
e-posta
012244aa@hezkuntza.net



- :: Haurreskola
(0-2 urte Plaza Berrian)
- :: Haur eta Lehen Hezkuntza
(2-12 urte Samaniegon)



Haur Txokoa

07:30etik
aurrera

euskaraz bizizi nahi dugu



Matrikula epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra



ORIXETOLOSA

Mundu Zabalerako Zubia

- :: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- :: ZIG - Lanbide Tailerra
- :: Batxilergoak

telefonoa
943651387
webgunea
www.orixebhi.hezkuntza.net
e-posta
012980aa@hezkuntza.net



galtzaundi
euskarara taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiartxe, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostazu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia,
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala
GOITIK
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: 55-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketta, Anoeta, Baliarrain, Belantza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.

nonzer



Erreportaia:
Elikadura burujabetza, eskubide eta aukera

Elikadura burujabetza; egun maiz entzuten den terminoa da baina benetan esapide horren atzean dagoen esanahiaz eta egoeraz kontziente ote gara? Kontzeptuaz eta bere filosofiaz hausnartzen lagunduko digu Pedro Alberdik, EHNE sindikatuko teknikari eta Gipuzkoako BasHerri proiektuaren koordinatzaileak. Eskualdean Tolosako eta Asteasuko BasHerri egitasmoak errealitate izanda, Ibarren berri bat martxan jarri lanetan ari dira.

8-11. orrialdeak

Antton Izagirre (Tolosa 1954) Artzabaltzako semea, LABeko irakaskuntza atalaren eraketan parte hartu zuen, Galtzaundi Euskara Taldeko sortzailea izan zen moduan, Herri Bataunako irakaskuntzako arduradun politikoa eta Tolosako alkatea izan zen 1999tik 2003ra.

Elkarriketa: Antton Izagirre

14-16. orrialdeak

| | | |
|---|---|-------|
| 6 | Iritziaren leihoa: Garbiñe Biurrun eta Joxe Agustin Arrieta | 4-5 |
| 6 | Normalizazioa: Hizkuntza aniztasuna gizarteratzea helburu | 6-7 |
| 6 | Eskualdeko albistea: Txolarre Irratiaren IV. Bertso Saioa | 12 |
| 6 | Txomin Garmendia | 13 |
| 6 | Zintzilik: Kimutx | 17 |
| 6 | Kultura: Uxue Alberdi | 18-19 |

Urte berria. Aro berria. Erronka berriak



Garbiñe Biurrun Mancisidor
Epailea

Urtero aldatzen da urtea eta, beraz, urtero datorkigu urte berri bat. Txotxolokeria badirudi ere, gogoeta honek badu bere garrantzia. Alde batetik, urtero gure buruari ematen diogulako asmo zaharrei garatzeko aukera berri bat; bestalde, aukera hori, behin eta berriro errepikatzen denez, arinki hartzen dugulako.

Egia da urte berriak, berez, ez duela gure inguru aldatzen, ez eta bide berriak zabaltzen. Baina, zorionez, urte guztiak ez dira berdinak eta batzuek, besteen gainetik, aukera bereziak eskaintzen dizkigute. Hauxe da, nire iritziz, aurten gertatuko dena. 2013. urtea aro berri baten bidea zabaltzen du eta erronka berriak aurkezten dizkigu.

Ez dut esango aurreko urteetan horrelakorik gertatzen ez zenik, baina usain berria hartzen diet datozen urteei. Euskadiko Erkidego Autonomoan hauteskundeak izan

ditugu eta Legebiltzar eta Jaurlaritza berriak osatu dira. Eta oraingo honetan esan daiteke, benetan, erakunde horietan haize berriak sartu direla. Haize berriak indar politiko eta sentsibilitate guztiak aukera izan dutelako, berdintasunez, herritargoaren aukera izateko; haize berriak ordezkaritza politikoko guztiak asatasunez, mehatxurik gabe eta beldurrik gabe, euren betebeharrak egin ditzaketelako. Haize berriak, azkenik, helburu politiko guztiak hitzaren eta elkarriketaren bitartez bideratuko direlako.

Egoera eta giro berri hauek erronka berriak ere badiugu gure aurrean, gure gaurko beharrei arduraz erantzun ahal izateko: hainbeste herritarrengan horren ondorio larriak dituen krisi madarikatu honi irtenbide juxtua ematea izango litzateke lehendabizikoa eta hau, noski, helburua justizia soziala eta ez besterik izan behar duela ahaztu gabe; bakea eta elkarbizitza landu eta sendotzea; Estatu espainiarrekiko harremana birpentsatzea eta Euskal Herria osatzen duten beste lurraldeekin lotura berriak sortzea.

Egia da erronka hauek ez direla erabat berriak, ez edukien aldetik, ez eta irtenbide bat emateko dagoen premiaren aldetik. Baina berriak dira, ordea, egoera soziala eta politikoa eta, bide batez, arazo horiei erantzuna emateko modua. Beraz, nola erantzun gaur erronka hauei? Nola

erantzun gure gizarte berri honetan?

Nik esango nuke erantzuna denon betekizuna eta ardura dela.

Alde batetik, Gobernu berriarena. Horretarako, hasieran, behintzat, Legebiltzarrean sostengu eskasa baldin badu ere, etenik gabeko elkarriketa mantentzea eta adostasunak lortzea izango direlarik bere lehentasunak.

Bestalde, Legebiltzarreko talde guztiena, herritargoaren beharrei denek erantzun beharko dietelako begirunez eta leialtasunez. Begirunez, gure ordezkaritza direlako eta gure arazoei behar dutelako izan euren kezkarik handiena; leialtasunez, herri honekin konpromisoa sinatu dutelako.

Azkenik, gizarte osoarena. Lan politikoa ez da eta bakarrik Legebiltzarrean edota Gobernuan kokatzen. Herritargoa antolatuta dago; herritarrok, lau urteren behin gure botoa emateaz gain, zuzenean hartzen dugu parte gurea publikoan, sindikatuen eta era guztietako elkarte zibilen bitartez, gure iritzia adieraziz eta gure eguneroko lana eta betekizunei arduraz aurre eginez.

Orain, ditugun arazoei eta erronkei era berri eta eraginkorrean erantzuteko, maila guzti horiek uztartu behar dira eta esparru guzti horien kolaborazioa ezinbestekoa da. Ea lortzen dugun politika egiteko modu berri hau sendotzea. Bestela, gureak egin du.

2013a annus horribilis?

Ez dakit urte zaharren balantzerik egin ahal dugun; baina 2012a joan da. Ezer handirik, ezer mamizkorik, bizi izan al dut joan den urte honetan? Merez duen esperientzia sakonik bizi izan al dut? Baiezkorik baldin badugu, ez da makala izango sartu garen urte berri honetan. Nik uste galdera hauen erantzunetik ahal dugula etorkizunera baikor begiratzea.

Hainbat punturen artean, ekonomia krisiaren bideratzea, gure Euskal Herriaren herri erakitzea eta herrigintza mailako baketean laburbilduko nituzke urte berri honetako asmoak eta lanildoak.

Daukagun krisialdi ekonomiko ez da gurea bakarrik, ezta Estatu mailakoa bakarrik ere; nazioarteko mailan nabari den ekonomia krisiarekin loturik dago. Azken urteetan zabaldua eta luzea da krisialdi ekonomiko. Eta ezaugarri hauek ditu: gogor urritu da ekonomia haziera, areagotu egin dira lanik-eza eta inflazioa, diru inbertsioa murriztu eta garestitu egin da. Eta inbertsioa oso beharrezkoa da Industri Emaizta Gordina edo BPG gehituko bada eta lantoki berriak sortu nahi badira.

Hala ere, ekonomi xehetasunen atzean giza arazo mardulak daude, eta ez dira nahiko datu ekonomikoak azaltzea. Ekonomi adierazpen hauek zenbateraino erakutsi diezagukete pertsonen eta familien sufrimendua, gizarte eta desberdintasuna, agerian edo ezkutuan dauden gatazka, giza eskubideen eta norberaren duintasunaren aurka egiten di-

ren hutsegiteak?

Erantzukizun berezien artean hauek azpimarratuko nituzke:

1. Denen onak gizabanakoen interesen gainetik egon behar duela. Garrantzitsua dela murrizketa sozialak ez egitea. Hemen Eusko Jaurlaritzak, bere kompetentzia mailan, garrantzi ikaragarria du: Fondoak bideratuz, ekonomiazko harremanak eta lan arloko eskakizunak entzunez irtenbideak eskainiz...

2. Herriaren gastuak edo gastu publikoa eta, eskuarki, erakunde publikoen eta administrazioaren jokabideak aparteko garrantzia dute, bai jokabideen egiazko edukiaren aldetik, bai jokabideen aitormen balioaren aldetik; gainera jardunbide zuzen eta neurritsuak suspertuz.

3. Bestalde, horrelako ekonomia egoera batean, denek behar horietarako modurik ez dagoela ikusten denean, eta batez ere, inbertsiorako eta lantokiak sortzeko beharrezkoa den aurrezki egin behar denean, alferrikako gastuak urritu egin behar dira, eta gizartearentzat emankoragoak diren eginkizunetan erabiltzen saiatu.

4. Gure erakunde publikoek ezin dute herri-diruari iruzur egin, guztiz gaitzestekoa eta justiziaren lege konpondua izan behar du. Agian, egoki-aldi ona litzateke, behin betiko ikas dezagun, herri-dirua ez dela inorena, baizik eta helburu oso jakina duen ondasun bat dela: elkarrearen zerbitzurako den ondasuna; eta gizabanakoen edo taldeen onura partikular eta berekoiek ez dezaketela inolaz



Joxe Agustin Arrieta Egiguren
Irakaslea

Nork daki zer izango den 2013ko urte hau? Traza eta jite txarra dauka. Gure ekonomialariek eta jende jakintsuek hala diote. Seguru nago askori "urte berria" kendu ezker, ez litzaiokeela ezer garrantzizkorik gertatuko. Berdin-berdin jarraituko lukete. Eta batzuk –asko ez esateagatik– larri eta urduri. 2012a urte beltza izan dugu.

ere desbideratu ondasun horrek duen helburu jakinetik. Zoritxarrez, bai hainbat politikarik eta banka batzuen jokabideak tamalgarriak izan dira eta justiziarren esparrutik zuzenduak izan beharko lirake.

5. Zuzentasuna, begirunea, askatasuna eta solidaritatea sortuko dituen ekintza sozialak, politikoak eta ekonomikoak garrantzitsuak dira. Uste horretan nago eta utzi ezin dugun zeregin da, edozein dela erakunde horien izaera edo legeko estatutoa.

Giltzarriak iruditzen zaizkit herriarekiko sentiberatasuna, eta behartsu eta premiatsuen-

ganako hurbiltasun berezia, zuzentasunaren eta anaitasunaren aldeko ekintzetara zabalik egotea; eta baita denentzako ongizate jator bat sortzen lagunduko duten ekintzak berreratzea.

Urte berri honi, berri izatearen alde, grina opa diot, ametsa, ilusioa, nobedadea. Ez gaitzala joanaren zahardadeak bere ezerezean irentsi. Eutsi diezagun gazte barruko nahiari. Segi dezagun bila: harreman berrien bila, justiziaren berritasunaren bila, justiziaren mundugintza berri baten bila, pobrentzat aterpe bila, eroriak jasotzeko gogoz, pobreak pozteko ahaleginez.

Hizkuntza aniztasuna gizaratzea helburu

Urrian hasi eta abendua bitartean Galtzaundi Euskara Taldeak "Herriko hizkuntza aniztasunaren ikusleioa" deituriko moskeo kanpaina izan du martxan. Tolosarren eta bereziki tolosar ikasleengan eragitea bilatuta, jasotzaileak herriko hizkuntza aniztasunaz jabetu nahiarekin. Egitasmoak balorazio positiboa jaso du.

Egitasmoari informazio kanpaina deialdi baten bitartez hasiera eman zitzaion iragan urrian. Orduan Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosaldean bizi eta atzeritar jatorria duten norbanakoen laguntza izan zuen; kanpainari zegozkion kartelak herrian barna zabalduz -Triangulo plaza, Zumalakarregi kalea eta San Frantzisko pasealekua- eta komunikabide aurrean aurkezpena eginez.

Horrela, hilabetez hilabete, urritik abendura bitartean, Tolosako kaleetan barrena hainbat kartel topatu ahal izan ditu oinezkoak. Lehenik, Tolosan hitz egiten den hizkuntza bakoitza -60 baino gehiago- jatorrizko hizkuntzan zein euskaraz ikusgai egon dira. Horretaz gainera, kanpaina horrekin batera "munduan 6.000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira" esaldia txertatu da, munduaren benetako aniztasunaren adierazle gisa. Aipatu txartelak astebetean ikusgai egon dira kaleetako hiri-altzarietan. Zuhaitzak, farolak, barandak... herritarren atentzio-gune bilakatu dira.

Ikasleak aniztasunaz jabetzeko parte-hartzaile

Ondoren, Tolosako ikasleen partaidetza bultzatu da. Izan ere, Laskorain Ikastolan, Hirukide Ikastetxean eta Orixe ikastetxean postontziak banatu dira, "Zenbat hizkuntza hitz egiten dira munduan?" galderari erantzuna eman ahal izateko. Guzti-

ra, 887 ikasleren erantzuna jaso du Galtzaundi Euskara Taldeak luzatutako galderak. Erantzun zuzena gainera, 773 ikaslek eman dute -parte-hartzaileen %87,14-. Ikastetxeak banan-banan aztertuz gero, ondorengo datuak dira aipagai: Orixe Ikastetxean 205 erantzun eta 160 zuzen (%78,04); Laskorain Ikastolan 466 erantzun eta 434 zuzen (%93,13) eta azkenik Hirukide Ikastetxean 216 erantzun eta 179 zuzen (%82,87).

Azaroan txartel berriak zabaldu ziren Tolosako kaleetan zehar; informazio zabalagoa eskainiz txartel bakoitzean. Hau da, hizkuntza, euskarazko izena eta nazionalitatea irakurtzeko aukera egon zen azaroan zintzilikatutako txarteleetan. Aipatu txartelak hiru astez ikusgai egon ondoren, bigarren galdera luzatzeko beta heldu zitzaion Galtzaundi Euskara Taldeari. Kasu honetan botatutako galdekizuna ondorengo bikoteen artean okerra zena antzematea izan da: Ecuador-Kitxua, Hassanian-Sahara, Aymara-Mexico eta Pakistan-Urdu.

Honakoan, guztira 574 ikaslek parte hartu dute; 429 ikaslek -%74,73- galderari erantzun zuzena eskainiz gainera. Datuak ikastetxez ikastetxe aztertuta ondorengo partaidetza datuak azpimarratu daitezke: Orixe Ikastetxean 117 erantzun eta 88 zuzen (%75,21); Laskorain Ikastolan 337 erantzun eta 266 zuzen (%78,93) eta azkenik Hirukide Ikastetxean 120 erantzun eta 75

zuzen (%62,5).

Galtzaundi Euskara Taldeak ikasleek erakutsitako partaidetza eta konpromisoa eskertu nahiarekin euskal musika disko-sortak zozketatu ditu. Irabazleak Laskorain Ikastolako Aizpea Martinez eta Hirukide Ikastetxe-k Ane Peña suertatu dira.

Azkenik, abenduan txartel berriak zabaldu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosako Triangulo Plazan, Zumalakarregi kalean eta San Frantzisko pasealekuan. Oraingoan, gainera aurreko hilabeteetan hedatutako hizkuntz horiei buruz informazio gehiago helaraziz; oinarritzko agurra hizkuntza bakoitzean, alegia: "Hello! How are you?"; "Moi! Mitä kuuluu?"; "¡Hola! ¿Qué tal?..."

Kanpainak iraun dituen hiru hilabeteak igarota eta jasotako emaitzak aztertuta, kanpainaren balorazio orokorra eskaini



du Galtzaundiko kide Amaia Doyaguek: "hiru hilabete iraun dituen kanpaina hau baliagarria izan da, data horietan behintzat, Tolosaldean bizi dugun hizkuntza aniztasunaz ohartzeko. Horretarako, ezinbestekoa izan da parte-hartzaile ezberdinen lankidetzaz; bereziki, Banaiz Bagara elkarteko kideena eta Orixe, Laskorain eta Hirukideko ikasleena".

Bazkide kuota

Galtzaundi Euskara Taldeko bazkideei jakinarazten zaie urtarriaren erdialdean urteko kuota kobratuko zaiela. Gogoratu errenta aitopenean desgrabatutako aukera dagoela; agiria jasotzeko NANarekin Galtzaundiko bulegotik pasa beharra dago.

Galtzaundi Euskara Taldearekin bat egin, Galtzaundi Aldizkaria etxean jaso eta elkarrekin

antolatutako kultur ekitaldietan abantailak izan nahi badituzu indarrak bildu, euskara indartu besterik ez duzu. Egin zaitez Galtzaundi Euskara Taldeko bazkide, urtean 43 euroren truke. Informazio gehiago Galtzaundiko bulegoan (Nafarroa etorbidea, 6 behe), telefonoz (943 65 50 04) edo helbide elektronikoen bitartez (galtzaundi@galtzaundi.com).



Arretxe
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel: 943 673 118 Tolosa

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com

Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskorain bialan 25, 1-04 atea
20271 Iruia (Gipuzkoa)



Elikadura burujabetza, eskubide eta aukera

Elikadura burujabetza; egun maiz entzuten den terminoa da, baina esapide horren atzean dagoen esanahiaz eta egoeraz kontziente ote gara? Kontzeptuaz eta bere filosofiaz hausnartzen lagunduko digu Pedro Alberdik, EHNE sindikatuko teknikari eta Gipuzkoako BasHerri proiektuaren koordinatzaileak. Eskualdean Tolosako eta Asteasuko BasHerri egitasmoak errealitate izanda, Ibarran berri bat martxan jartzeko lanetan ari dira. BasHerrik kontsumitzaileak eta baserritarrak elkartzen ditu nekazari produktu otar baten aitzakian.

Naiara Roldán de Aránguiz

BasHerri egitasmoa duela hiru urte Gipuzkoako EHNE sindikatuak abian jarri zuen, eta Tolosaldeari dagokionez, duela bi urte Tolosako kontsumo taldea sortu zen. BasHerri proiektuak funtsean egoera bati aurre egitea bilatzen du: "baserritar gutxi geratzen ari direla ikusita, eta geratzen diren gutxi horiek industriarekiko duten menpekotasuna ikusita, sektorerara baserritar berriak eta burujabeagoak inkorporatzeko alternatiba da BasHerri", dio Pedro Alberdik.

BasHerri taldeetan baserritarrek eta herritarrek adosten dute zein produktu ekoiztu nahi duten, normalean eredu ekologiko bati lotuta. Baserritarrak herritarren beharretara egokitu-ta ekoiztu eta bi partean artean prezioa adosten dute, prezio duina izanik alde bietarako.

Ondoren, banaketa astero egiten da, Tolosako kasuan

asteartero arratsaldeko 19.00-19.30 bitartean Zerkausian, azoka gunean, Begoña Aristik, talde horretako baserritarrak jakinarazi bezala. Tolosako kasuan Zerkausia aukeratu izana ez da kasualitatea, izan ere, banaketa toki publiko batean egiteari erabateko garrantzia ematen dio BasHerri proiektuaren koordinatzaileak: "toki publikoak nekazaritza lokala eta elikadura burujabetzaren eskubidea aldarrikatzeko aukera ematen du; baserritarraren eta herritarren arteko harremana lortzeko baliagarria da eta gainontzeko herritarrek ikusten zaituztela, jendearen interesa piztu eta erakartzeko bidea da".

Beste zenbait merkaturatze moduetan -internetez, etxez- etxeko banaketak...-baserritarraren eta kontsumitzailearen arteko harremanik sortzea zaildu egiten da, eta baserri-

tarraren egonkortasuna ez da bermatzen, horregatik askok alboratu eta BasHerri formula bideratzen dira. "Harremana klabea da, ez badago harremanik kontsumo taldeak ez dauka zentzurik. Kontua otarra bete eta kuota ordaintzea bada, ez du funtzionatuko. Aurre-esperientziak esaten du talde horrek desegiteko aukera handia duela", dio irmoki Pedro Alberdik.

Izan ere, talde hauen funtzionamenduaren funtsetako bat kontsumitzailearen eta baserritarraren artean sortzen den harremana tinkatzea da. Are gehiago, talde hauetan baserritarrak herritarri baserriko lanak gerturatzeko konpromisoa hartzen du, baserrian gertatzen dena komunikatzea adostuta dute alderdi biek. Baserriko lanak bertatik bertara ezagutzeko bisitak antolatzen dituzte Azkoitiko tal-

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA



J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



deak, esaterako, "herritarrak edozein momentutan baserriko lanetan lagundu nahi badu, baserritarrak aukera eskaintzea adostu dugu".

Aldaketak krisialdiak eraginda
BasHerri taldeak osatzeko garaian lurra -Gipuzkoako lurren %90a esku pribatuetan dago eta baserritarra topatzea zailena

izaten zela kontatzen du Alberdik. Egun, honako egoerak al daketa jasan duela ere zehazten du proiektuaren koordinatzaileak: "krisia dela eta, azken hilabeteetan, prozesuak kontrako joera eman du. Lur-eremu bat duten pertsonak, baserritarren seme-alabak, langabezia egon edo nahiz eta kalean lan egin beste aukera bat landu nahi duten norbanakoak gerturatu zaizkigu euren lurak ekoiztu eta BasHerri talde batean parte hartzeko intentzioarekin". Honako nekazaritza sektorearentzat positiboa dela zalantzarik ez du Alberdik. Baserritarraren profila ere aldatzeko baliagarria baita. Egun Gipuzkoako baserritarren batz besteko adina 58 urtekoa

da, BasHerri proiektuan parte hartzen dutenena berriz 35 urtekoa.

Gipuzkoan 50 talde, hurrengoa Ibarra

Mundu mailan tankerako lehen taldeak hirien baitan sortu badira ere; -Estatukoa Madril; Kataluniakoa Bartzelonan eta Euskal Herrikoa Bilbon- Gipuzkoako kasua bestelakoa izan da. "Duela hiru urte Gipuzkoan hasi ginenean herrietan hasi ginen, eta gaur egun herri nagusi gehienetan badago BasHerri talde bat", zehazten du Alberdik. Guztira Gipuzkoan 50 taldetik gora daudela argitzen du proiektuaren koordinatzaileak. Erreferentzia bezala 5.000 metro lur bakoitzeko 25 otar handirentzako -4 pertsona helduentzako- ekoizpena izaten du baserritar bakoitzak.

Gipuzkoako 50 talde hauei bat gehiago batuko zaie datozen egunotan. Izan ere, Ibarra urtarrilaren 17an taldea sortzeko lehen bilera ospatu dute. Bertan, Pedro Alberdi hizlari izanik BasHerri proiektuaren aurkezpena burutu da, Ibarra kontsumo taldea martxan jartzeko intentzioarekin.

Taldeak sortzearen interesa alderdi ezberdinetatik etorri ohi da; udaletxeek eskatuta, herritar talde baten beharrek galdetuta edota baserritar baten burutaz. Ibarra kasuan, alde batetik, herritar talde batek interesa bultzatuta sortuko da; hauek Tolosakoan parte hartzen zuten Ibarra bertan, euren herrian, ekimen berdina errealitate bihurtu nahi izan dute. Eta bestetik, Gazteluko baserritar batek ere ekimena martxan jartzearen intentzioa azaldu zion EHNERi.

Horregatik, urtarrilaren 17an taldea abian jartzeko lehen pausoa eman berri dute, lehen bilaren ospakizunarekin. Gero, EHNERen, eta eskualdeko kontsumo taldeen laguntza eta bultzada izango du Ibarra taldeak bere hastapenetan. Bilerak ordea, ospatzen jarraitu beharko dira; taldeak funtzionatu ahal izateko bilera dinamika mantentzea beharrezkoa dela aurreratzen baitu Pedro Alberdik: "ekoizlea eta kontsumitzaileak bilduko dira, kuota, produktu aukera zabalteaz, etab. mintzatzeko. Batzar horietan erabaki beharreko guztia horizontalki adostuko da". Ibilbide luzea izan dezala hortaz Ibarra taldeak.

Pedro Alberdi: "Gizarte eraldaketa emateko, BasHerri sarea osatzea beharrezkoa da"

Bloga, BasHerri sarea eta BasHerri Topaketak

BasHerri proiektuaz informazio gehiago eskuratu nahi izatekotan <http://basherri.wordpress.com/> blog-a bisitatzeko aukera dago. Bertan BasHerri taldeek zein gizarte osoak kanpo informazioa eskuratzeko bidea aurkezten da. BasHerri

proiektua osatzen duten 50 taldeek elkarren berri izateko modua da. Blogak, Pedro Alberdik aurreratu bezala, "elikadura burujabetza helburu du". Horregatik, "nahiz eta BasHerri talde bakoitzak indibidualki eta era autonomoan bere beharrak autogestionatu, gizarte eraldaketa emateko, BasHerri sarea osatzea beharrezkoa da".

Duela hiru urte lehen BasHerri taldeak sortu ziren. Ondoren bailaraka azpi-sareak antolatu ziren, arazo eta irtenbideak partekatuz. Hurrengo pausua BasHerri sarea sendotzea izango da. Horretarako, datorren urtarrilaren 26an, Azkoitia ospatuko diren BasHerri Topaketak baliagarri izango dira: "elkar ezagutzeko, elikadura burujabetzaren inguruan formazioa jasotzeko, arazoak konpartitzeko, produktuak elkartrukatzeko eta elkarrekin komunikatzeko". Bertan izango dira Gipuzkoako taldeekin batera Tolosaldekoak ere.

Informazio gehiago:
<http://basherri.wordpress.com/>
EHNE Tolosa. 943 65 42 81

Elikadura burujabetza

Elikadura burujabetza bertako lurraldean eta bertako kulturara egokitutako baldintzetan ekoiztutako janaria kontsumitzeko eskubidea da. Eredu honek gainera, bertako baserritarrari bizi baldintza duinetan mantentzeko bidea ematen dio.

Egun munduan goserik gehien pasatzen duten norbanakoak nekazariak direla dio Pedro Alberdik. Egoera honek elikagaiak merkantzia bihurtu izanaren adierazle eskubide eta behar izatetik merkantzia izatera pasa dira, "Elikagaiak oinarriko eskubide eta behar izatetik merkantzia izatera pasa dira", salatzen du Alberdik. Are gehiago, "janariarekin espekulatu egiten da"; Pariseko eta Chicagoko burtsak gariarekin eta zerealekin duten jarrera horren adibide dira.

Egoera honek eta enpresa multinazionalen hazien merkantzia kontrolatzeak, munduko hazien aniztasunaren %75a desagertzea ekarri du OMEren esanetan. Egoera horren ondorio dira biodibertsitatearen kalteak, tokian tokiko espezieak mantentzeko bermearen galera, elikadura burujabetzaren galera, transgenikoen sorrera, etab.

Egoera honi jarraiki eta Euskal Herria etorrita, EHNE sindikatuak argi dauka Euskal Herria osasunean galtzen ari dela: "jaten dugun horrek gaixotzen gaitu eta ingurumena kaltetzen ari gara". Arazoari irtenbide eman nahian sortu dira BasHerri taldeak: "problematika gizarteratu eta herritarrak kontzientziazteko nekazaritza ekoizpen

sektorea izateaz gain Euskal Herriko nortasunari lotutako auzia dela kontzientziazte nahi dugu". Are gehiago, baserriak eta nekazariak desagertzea ez da soilik baserritarren kontua, gizarte osoarena baizik: "gizarteak eredu aldatzen lagundu behar du". Eta horretan egungo krisialdiak argi erakutsi du egungo ereduak porrot egin duela, baita elikadura eredu industrialak ere. Egoeraren laburpena eskaini du Alberdik: "azken urtetan 10 baserritarretik 8 desagertu dira".

Horregatik, elikadura burujabetza eskubidea denon artean errealitate izaten laguntzeko bidea bertako baserritarrek ekoiztutako bertaiko produktuak kontsumitzea da.

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izaguirre
Gosariak eta meriendak
Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA
Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi
SEGURAS
BILBAO
Aholkularitza
integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena
Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobiila: 608 774 822

matilda
zure moda osagaken denda
Korreo Kalea, 3
Tolosa



Txolarre Irratiaren IV. Bertso Saioa

Urtarrilaren 19an Tolosako Leidorren bertso saio berezia izango da Txolarre Irratiak antolatuta. Tolosako Udalaren laguntzaz, laugarren urtea da jarraian saioa antolatzen duela Tolosaldeko euskarazko irratiak. Hiruetan izan du lagun eta lankide Amaia Agirre, eskualdeko bertsolaria. Aurten ere, gai jartzaile bezala arituko da antzokiko taula gainean.

Erredakzioa

Amaia Agirreren esanetara sei bertsolari: Andoni Egaña, Jon Maia, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Igor Elortza. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da eskualdean erreferentzia bilakatu den bertso-saioa.

Sarrerak 10 eurotan izango dira salgai. Aldez aurretik eskuratu ahal izango dira eskualdeko ondorengo puntuotan: Tolosan Raku, Denak, Orbela eta Kantabriko tabernetan; Villabonan Amasa kafetegian; Zizurkilen Iriarte tabernan, Anoetan Buztina tabernan, Alegian Ixkina tabernan, Ibarrran Zubiaurre tabernan eta Berastegin Urepele elkartean. Urtarrilaren 17ra arte egongo dira sarrerak saltokietan salgai. Egunean bertan, hilaren 19an, Leidorreko leihatilan jarriko dira gainerakoak, 12 eurotan.

Irratiak 12 urteko ibilbidea
Txolarre Irratiak lehen zu-

zeneko emankizuna egin zutenetik 12 urte bete ziren joan den abenduaren 26an. Ordutik etenik gabe jardun du euskaraz eskualdearen berri ematen. Euskarazko hedabideena bidegurutze eta zailtasunez beteriko bidezidorra da, baina egin beharrekoa, Tolosaldeak euskara hutsezko irrati merezi eta behar duelako. Ahalegin horretan beste bultzada bat izango da Leidorreko bertso saioa. Irratiak eskualdean duen babesaren erakustaldia.

Sarreraren zozketa

Txolarre Irratiak eskainita Galtzaundi Euskara Taldeak bertso-saiorako sarrera bikotza zozketatu du bere bazkideen artean.

Irabazlea: Urko Kolomo
Leidorreko leihatilan bertan jaso ditzake bere bi sarrerak.

2012ko abenduan 15'an Joxe Agirre bertsolaria il zan

1. Larunbatez aditua,
ain albiste larritua,
bazter danak korritua:
eriotz batek moztu zuala
Joxe Agirren kreditua.
Ainbat plaza alaitua,
eriotzak du baitua;
Jaun zerukoak deitua.

2. Larogeita iru urterekin,
zama aundia berekin,
naiz bertsotan ondo egin,
erri batetik deitu ezker
ura ezin zun utsegin.
Lagunartean itzegin,
pentsamentuz giñan berdin;
egun on bat izan zedin.

3. Gazte gazterik Agiñan,
ezagutuak antziñan,
bertsoetako dultziñan,
bertsolarian txapelketa zan
saiatzeko alegiñan.
Lenen sarian zu ziñan,
ta gu jarraitu eziñan;
lagun onak egin giñan.

4. Geroztik erri ta auzo,
kantatuz eunka bertso,
autobus da trenez uso,
askotan andik ertendakoan
oiñez pausorikan-pauso.
Baiña gu pozikan oso,
amaika otordu gozo,
egin genduan eroso.

5. Mixiolari antzera,
batera eta bestera,
bertsoak kantatuzera,
iñoiz edo bein gertatu ere
estuusun da trantzera.
Puntu onen bat galtzera,
baiña zuzendu atzera;
okerrik gabe etxera.

6. Adunako Aburuza,
jaso bearko goruntza,
ez bai gendun etxe-utsa,
iñora bada eta pozikan
etorritzen zan onuntza.
Sagardoaren laguntza,
bertsolarian izkuntza;
lege zarrari nai bultza.

7. Zegaman Zarran Eguna,
pozik ospatzen genduna,
Aizkorri azpiko laguna,
Meza-Nagusian izaten gendun
lendabiziko jarduna.
Bazkalondoan urruna,
al bazan saio txukuna;
etorri arte illuna.

8. Zuzen zeruko atera,
Joxe zure joanera,
gero zorion batera,
zeruan dauden bertsolariak
bildurik aldamenara.
Euskaldun danak batera,
eman maite gendun era;
orrekin poztutzen gera.

9. Gurutzean il ziñana,
odola zendun emana,
salbatzeko mundu dana,
aitortu bear itxaropenez
emen aurkitzen gerana.
Aurki badator gugana,
Agirrek izan duana;
bil gaitzazu alkargana.

10. Joxe zure bukaera,
ikusteko gendun era,
kristau baten abelera,
zerutar danak poztuko ziran
guretzat berriz galera.
Anima zorionera,
eta gorputza lurpera;
sinistun baldin bagera.



Txomin Garmendia
Bertsolaria

Doinua:
"Ikusten duzu goizean"



Antton Izagirre, Kutxaren alde sozialaren apustua

Antton Izagirre (Tolosa 1954) Artzabaltzako semea, LABeko irakaskuntza atalaren eraketan parte hartu zuen, Galtzaundi Euskara Taldeko sortzailea izan zen moduan, Herri Batasunako irakaskuntzako arduradun politikoa eta Tolosako alkatea izan zen 1999tik 2003ra. Tolosako Udalaren izenean, Kutxako Administrazio Kontseiluko partaidea izendatua izan denez, etxegabetzeak eta AEBn ekonomi amildegiak aipatzen diren garai gogor hauetan, jendartearen beharrei erantzuteko gai izango den euskal herritarren neurriko Kutxa baten alde lanean ari da.

Felix Aiestaran

Etxeko ardurak eta lanekoaz gain, Pedagogia eta Psikopedagogia lizentziaturak egin ditu eta Antropologia ikasteko tartea hartu du. Krisiak astindutako 2012ko azken egunean bildu ginen berarekin, Kutxako lehendakari hautagaia izan ondoren bilakaera zalapartatsu batean, etorkizuneko Kutxabanken il-

doen berri bildu nahi izan dugu.

Kutxako Administrazio Kontseiluko partaide izanik, zein da zure lana?

Kutxako Batzarrak 79 kide ditu eta ni Tolosako Udalaren izenean azaroaren 21ean egin nintzen Kutxako Administrazio-kide, beraz, ibilbide laburra

izan da. EH Bilduren izenean Kutxako lehendakari izendatu ninduten. Administrazio Kontseilua hamabost kidez osatuta dago eta horietatik zazpi ordezkari EH Bilduk lortu zituen eta ni bertako ordezkarietako bat naiz, Biltzen taldea osatuz. Beste hiru EAJta-koak dira, bi PSEkoak, CCOO eta Pixkanaka bi sindikatuen ordezkari bana eta beste bat eragileen ordezkaria da. Kutxabanken Kutxari lau ordezkari dagozkie eta orain negoziaketetan ari gara talde bakoitzari zenbat dagozkion erabakitzeko. Administrazio Kontseiluko bilera bakarra egin dugu eta batzorde desberdinak abian jartzen ari gara.

Nola aukeratu dira Kuxako ordezkariak?

Eragile desberdinetatik datoz ordezkariak: Kutxan dirua dutenek aukeratu dituzten ordezkariak, eragile sortzaile diren Donostiako Udala eta Diputazioaren ordezkariak, sindikatuen ordezkariak, eragile sozialen ordezkaria eta bestetik, Kutxak bulegoak dituen herrien ordezkariak ere badira eta kasu honetan, Tolosako Udalak izendatu ninduen bere ordezkari.

Zenbateko maiztasunez bildu eta nola lan egingo duzue?

Batzaraurtean bitan bilduz erabaki oso formaletarako eta bi hilabete behin Administrazio Kontseilua biltzen da. Bestetik, inbertsio, ordainsarien, gizarte ekintza edo Kutxa Fundazioaren moduko batzorde desberdinek ere bere lana egiten dute. Eragiketa finantzario guztiak Kutxabanke egiten ditu. Kutxak egiteko ekonomiko-finantzarioa

ez du bere kasa egiten, baina Kutxak Kutxabankeko egituratik ateratzeko aukera ere azaltzen da estatutuetan, hala aukeratu gero kudeaketako ekonomiko-finantzarioa ere bere kasa egin

ten da. Biltzenek beste eredu defenatzen du, Kutxak orain arte izan duen izaera sozialaren alde eginaz. Bilduk Kutxabanken sorreran parte hartzean, bere izaera soziala aldarrikatu zuen

Eragile sozialek aurkeztutako hautagai bakarra baztertzea larrizat jo duzue...

EAJk hemengo indar korrelazioa aldatzean, Kutxaren kontrola galtzeko arriskua ikusi du.



ahal izateko. Kutxak betidanik izan duen egiteko garrantzitsua du bere gain; orain, bere izaera sozialari eustearena, alegia. Merkatu finantzarioan lanean ari den erakunde pribatua da, baina, irabazien ondarea obra sozialerako erabili behar du.

Kutxako Administrazio Kontseilurako lehendakari aukeraketa prozesuan gertaera larriak izan dira...

Kutxaren izaeraren inguruan bi eredu ari dira lehian. EAJ buru dela, alde batetik Kutxabank erabat pribatua bultzatzen du. Euskal Herritik kanpo ere, estatu mailako finantza munduan lehiatzeko oso ondo kokatu eta aktibo handiak izateko gizentzen jarraitu behar duen entitatearen eredu neoliberal baten alde egi-

negozialetan. Kutxabanken pribatizazioaren aurka gaude, erakunde publikoek bere kontrola izatearen aldeko apustua eginaz. Familia eta enpresa ertaineko beharrei babesa emango dien erakunde izatea nahi dugu. Guzti hau galtzen ari da, enpresa txikiak kreditua lortzeko gero eta arazo handiagoak dituztelako. Bankak jartzen dituen mugak hemengo sare ekonomiko hondamendira bota dezakete. Bestetik, gizarte ekintzaren alde egiten dugu, irabaziak ez dute izan behar beste bankuak erositik, handiagoa izateko, bertako osasun, kultur, kirol edo beste hainbat alor sozialeko beharrei erantzuteko baizik. Asanbladan gertatutakoa, bi eredu hauen talkaren ondorioztat jo behar da.

Bilduren zazpi ordezkariak eta eragile sozialen ordezkariak bat egin, Kutxaren eredu bat egin zezaketenez, EAJ, PP eta PSEk bat egin zuten. Biltzen Kutxako ardura guztietatik baztertzea izan dute helburu itun politikoa bidez. Pixkanaka eta CCOO sindikatuen borondatea erosi zuten, baina hala ere ez zuten eragile sozialeko ordezkaria kontrolatzen. Kutxako estatuak aipatuaz, 70 urte baino gehiagoko ordezkari ezin zela egon salatu zuten eta kontrolatzen ez zuten hautagaia ezgaitu zuten. Kontuan izan, 70 urteko hautagaia ordezkaria, Iturbek izendatutako lagunaren hautagaia ontzat eman zuten. Guk inpugnatu egin dugu hau guztia. Honetaz gain, Administrazio Kontseiluan 69 ur-

teko PSEren ordezkaria sartu zuten, adintsuena izanik mahaiko lehendakaria izatearren. Bozketa egitean, zazpinakako berdinketa izan zen, eragile sozialen ordezkaria abstentitu egin zelako. Le-tratuak kasu hauetan, mahaiko lehendakariaren bozka balio bikoitza duela azaltzen du. Hori azaltzen duen txosten juridikoa eskatu eta ez zitzaigun eman. Beste aukerak mahai gainean jarri genituen, eztabaida luze eta beroen ondoren Iturberen hautagaitza ontzat eman zuten.

Etika eta morala moduko goi balioek ba al dute tokirik honelako botere guneetan?

Ni beste balioak dituzten erakundeetan aritu izan naiz orain arte, baina Kutxako lehendakari hautagaitzan, ezkutuko interes ekonomikoek etikaren balioak baztertu eta boterea erabiltzen dute, bere menpean dauden egitura administratiboak bere alde jartzeko.

Administrazio Kontseiluko le-tratu burua den Leal andereari, erabakitze moduen irizpidea adosteko ea asanblada aurretik bildu zen galdetu diozue... Prebarikazioa legokeela zehaztuaz, salaketa gogorra, ezta?

Bai, galdera hori zuzendu genion, ea Administrazio Kontseilukoren batekin bildu zen. Lehen aipatu dudanez, botereak, bere menpeko eragile teknikoak bere alde erabiltzeko duen joera.

Eragile tek-
n i k o

hauek guztien zerbitzura egon eta inpartzialak izan beharko lukete. Lehendakaritza aukuraketa prozesuan prebarikazio zantzuak aurkitu ditugu.

Zein ondorio izango ditu Kutxabanken ildoan?

Bizkaian EAJK kontrolatzen du, Araban EAJK PSEri eman dio babes lehendakaritzarako eta guk Gipuzkoako lehendakaritza izan nahi genuen, Gipuzkoatik Kutxabanken pribatizazio baztertu eta bere ildo soziala aldarrikatzeko.

Zein da Kutxen gaurko zeregina eta zein izan beharko luke?

Mundu global honetan botere ekonomikoak politikoen gainetik kokatuta daude. Kutxak, beste erakunde ekonomikoek bezalaxe, inguruan erabakiak ez dira Euskal Herrian edo estatuan hartzen, urrutiago, baizik. Urteko azken egun honetan, Obamak akordioa lor dezan mundu osoa begira dago, mundu osoko ekonomia arriskuan dagoelako. Europa mailan ere lehiakorra izan behar duen Kutxabank handitu batean erabakitze guneak urrutiratu egingo lirake. Bere onurak ere urrutiratu egingo lirake.

Oraindik ere desjabetzeak egiten dituzte Kutxankek, ezta?

Desjabetzeak egiten jarraitzen da eta guk desjabetzeak gelditzeko ez ohiko batzarra egitea eskatu genuen, baina atzera bota zuten. Iturbek ur-tarrila erdialderako gaia aztertzeke ez ohiko Administrazio Kontseilua egingo denaren berri eman zigun.

Euskararen erabilera bermatua al dago Kutxabanken?

Biltzenek euskararen erabilerearen plana mahai gainean jartzeko asmoa du, gaur eguneko egoeratik abiatu eta zein beharko lukeen azalduko du. Bulegoetan euskaraz egitea eskatzen dut eta halaxe egiten didate. Euskara gure lehentasuneko artean dago. Zoritxarrez, Administrazio Kontseiluan ez da euskara hutsen egiten hiruzpalau eragile erdaraz aritzen direnak direlako. Kutxak pertsonala berria kontratatzeke garaian badu euskararekiko sentsibilitatea.

Epe motzean zein egitasmo dituzte?

Etxegabeteak gertatzeko baldintzak aldatzea, gaur eguneko kreditu lerroko egokitzea enpresa eta komertzio txikia sustatzeko, kanpotik datorren ildo izanik ere pribatizazioaren aurka borrokatu nahi dugu eta izaera sozialari eusteko asmoa dugu. Beldur gara, hemendik urte pare batera Gipuzkoako Kutxak ez ote duen dirurik izango bere gizarte ekintzari eusteko, irabaziak beste operazio batzuetan erabiltzen direlako (kapitala handitu edo arriskuko operazioetan). Enpresa farmakologikoak atzetik daude eta Onkologikoaren pribatizazioa ekidin behar dugu. Gure apustua Onkologiko sare publikoan sartzearen aldekoa da. Bestetik, Kutxako hainbat ordezkariak CAF eta antzeko administrazio kontseiluetan parte hartzen dute eta hor izango da zeregina. Kutxabaneko ordezkariak aldatu beharko da, oraingoa aurreko legegintzaldikoa delako eta Biltzen taldeko ordezkariak hor egotea espero dugu.

Zintzilik



Txarli Gesteira

Blogaria
txarli/berriketan.info

Kimutx, izaki mitologikoen eskolan jolastuz eta kantatuz

Bildu eta landutako materiala sarean zintzilikatu dute: <http://kimutx.eu> helbidean.

Helbide honetan, beraz, Euskal Herriko kulturaren, kondairen, bertsoen eta musikaren testuinguruan kokatutako auzolanean landutako ipuin eta kantu bilduma ezagutzeko aukera izango dugu, 0 eta 6 urte bitarteko haur eta gurasoei zuzendua dago.

Webgunean azaltzen duten moduan, etxe giroan hasitako proiektua da, auzolanean hazi eta herri giroan osatu dena. Parte hartu duen bakoitzak dakiena eginez elikatu du proiektua; etengabeko ikaskuntza prozesuan haurrak izan dira ikasteko, jolasteko eta gidatzeko giltza.

Honela, webgunean aurkitutako material guztia Creative Commons, cc-by-sa 3.0 lizentziapean argitaratuta dago. Hau da, proiektu honen edukiak

Duela lau bat urte Oretetako bi ama gazteek, haurren heziketaren inguruan behar edo hutsune batzuk nabaritzen zituztela eta, materiala sortzen eta biltzen hasi ziren, eta bildutako materialari forma emateko laguntzaile bila hasi ziren. Honela azkenean Euskal Herri osoko 40 lagun baino gehiagok hartu du parte Kimutx proiektuan. Auzolanean aritu dira, bertsolariak, musikariak, abeslariak, idazleak, sorkuntza munduko lagun asko bildu da proiektuaren inguruan...



kopiatu, banatu, lan eratorriak sortu eta jendaurrean hedatu daitezke, beti ere egiletza aitortu ezker. (<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>).

Doinu, kantu, bertso etab. -en bitartez landuko diren gaiak hauek dira: esnatzeko orduan goxo, jolasten arropa jantzi, eskolara/haurtzaindegira joan, jateko unea, jostailuak jasotzeko garaia, etxera bueltatzeko bidea, bainutxoan jolasean, ohera joateko deia, loaren aurreko beroa, laguntasunaren balioa landu.

Gai bakoitza abesti batekin lantzen da eta hau, ipuin batean txertaturik dago. Ipuinek, euskal mitologiaren munduan murgilduko gaituzte. Bertan, pertsonaia mitologikoak haurrak dira, eta haien bitartez beraien mundua ezagutzeko dugu ume diren izaki horien begietan.

Kantak eskura daude deskargen atalean, gorde eta uneoro entzungai izateko. Honela, etxean, eskolan, kotxean, oporretan... eskura izateko. Kantuen letrak ere webgunean daude, jaitzi eta inprimatzeko. Irudi mozgarriak ere aurkituko ditugu, inprimatu, moztu eta txotxongiloak egiteko. Baita koloretzatzeke irudiak ere.

Nahi izanez gero, material guztia, hau da, ipuin bilduma, kantak eta material didaktikoa etxean jasotzeko aukera dago. Tolosaldean, Iruran aurkitzen

da banaketa gunea (informazio gehiago banaketa@kimutx.eu helbidean).

Modu eroso eta dibertigarria familian, lagunartean, etxean, kalean, Euskal Herriko mitologia, kultura eta folklorera gerturatzeko.



Uxue Alberdi:

“Bertso munduarekin alderatuta, publikoaren *feed-black*-a oso txikia izaten da literatur munduan”

Uxue Alberdi idazle, bertsolari eta kazetaria da. Ofizioak pasioz betetzen dituen sortzailea da. Ama izan denetik kazetaritza lanak alboratu ditu. Tolosan Galtzaundi Irakurle Taldean izan da 2007an kaleratu zuen “Aulki bat elurretan” ipuin-liburua hizpide izanik. Bere hitz idatziek, baina baita bere naturaltasunak eta benetakotasunak irakurle taldeko partaideak konkistatu ditu.

Naiara Roldán de Aránguiz

Gaurkoan Tolosan Galtzaundi Irakurle Taldeak gonbidatuta zaitugu, Zumaia eta Getariako Irakurle Taldeko dinamizatzaile ere bazara. Zer nolako papera betetzen dute talde hauek euskal literaturan?

Euskal literaturan dugun pribilegioetako bat da. Literatura txikia izateak alde ez hain on asko ditu baina baita onak ere; aukera dugu zuzen-zuzenean gure literaturako idazle horiekin biltzeko, beste literaturatan ez da horrelakorik gertatzen. Bi aldeetatik ezagutzen ditut irakurle taldeak. Getarian eta Zumaian dinamizatzaile gisara bi urtetan 10 bat idazle ezagutzeko aukera izan dut, denak oso diferenteak, genero diferentetan aritutakoak.

Bertso munduarekin alderatuta, publikoaren *feed-black*-a oso txikia izaten da literatur munduan. Ez baleude irakurle talde hauek oso jende gutxiren iritziak iritsiko litzazkioke idazleari. Oso balagarriak dira jakiteko irakurleak idazten duzun horretatik zer jasotzen duen, zer galderak

sortzen dizkion, nola interpretatu dituen zure testuak... Talde hauek balio izan didate jendeak literatura zer serio hartzen duen konturatzeko. Literatura benetan barrura iristen dela erakutsi didate. Gure irakurle taldean literaturatik abiatuta hainbat gaiei buruz eztabaidatu dugu (maila sozialekoak, generoari buruzkoak, belaunaldien arteko diferentziak buruzkoak...).

Gaurkoan “Aulki bat elurretan” zure lehen liburua hizpide da irakurle taldean. Lehen argitalpena 2007an izan zen, urteak igaro dira baina nola gogoratzen duzu idazketa prozesua?

Idazten hasi nintzenetik 8 urte pasa dira eta ipuin batzuk gainera zaharragoak dira. Ipuin batzuk 18 urte nituenekoak dira, orain 28 urte ditut. Ez dakit zenbat aldatuko den norberaren bizitza 40-50 urte bitarte horretan, baina 18 urterekin nuen bizimodua eta nintzena eta orain 28 urterekin dudana, erabat desberdinak dira. Oso garai bizian idatzitako li-

burua da. Beti gustatu izan zait literatura eta idaztea baina Erasmus beka eman zidatenean eta Suediara urtebeterako joan nintzenean idazteari denbora eskainiko niola erabaki nuen. Han idatzi nituen ipuin gehienak. Orain jabetzen naiz zer desberdina den orduan nuen eta orain dudana idazteko modua. Ahalegina berbera da, %100a jarri eta ahal dudana ondo egitea baina, “Aulki bat elurretan” estilo ariketa izan zela konturatu naiz, bidea bilatzen hasteko lehenengo saiakera. Aldi berean, oso liburu maitea da lehen lana izan delako.

Gaur berrirakurtzen aritu naiz eta egia da lotsa puntu bat sentitzen dudala... Ikasten noala pentsatu nahi dut. Gauza batzuk ez nituzke egingo egin nituen bezala baina, hala ere, interesantea da non nagoen, nondik hasi nintzen, zer kezka nituen orduan... konturatzeko.

Ondoren, “Aulki jokoa” etorri zen. Nolako izan da liburu bien arteko bilakaera?

Bi liburu erabat diferente dira; ipuin-liburua bata eta bestea nobelatxo. Bilakaerari dagokionez, gero eta barrurago sartzen naiz literaturan. “Aulki bat elurretan” idatzi nuenean letren munduak liluratzen ninduen eta pertsonaia batzuk hartu eta jokoan jarri nituen estilo ariketa batean, baina ez nituen pertsonaia oso ondo ezagutzen. “Aulki jokoa”n ordea, errealitatetik abiatu nintzen, nire aitona-amonen koadrilatik, eta alderantzizko lana egin behar izan nuen, errealitatetik askatu fikzioa egin ahal izateko.

Orain beste ipuin-liburu batekin ari naiz eta pertsonaia hobeto ezagutzen ditut. Nahiz eta fikziozko lanak izan, pertsonaia horien emozioak oso dira nireak edo nire inguru gertukoak. Liburu berri honek oraingoz ez dauka titulurik, baina badakit udazkenean argitaratuko dela Susa argitaletxearekin. Dagoeneko 6-7 ipuin idatzi ditut eta guztira 10 bat izango direla esango nuke. Ipuin helduagoak dira, logikak adierazten duenez, beti



baikaude aldatzen eta eboluzionatzen.

Duela gutxi amatasuna zer den ezagutu duzu. Zertan eragin dizu sortzaile gisara?

Erabat eta onerako. Konturatu nintzen niretzat oso denbora gutxi nuela, eta denbora hori zertan eman nahi nuen erabaki nuen. Alabaren zaintzan ematen dudana denboraz gain, daukadan beste denbora guztia bertsotan edo idazten ematen dut, ez dut beste ezer egiten. Ipuin-liburuak, umeentzako ipuinak edo enkarzuguzko lan batzuk egin ditut baina beti literaturarekin edo bertsolaritzarekin lotuta. Lehen mila guzetan nengibilen, ustez denbora gehiago nuen, baina nire burua ez nuen ondo topatzen. Ama izateak hankak lurrean jartzen eta kanpo presiotik askatzen lagundu dit.

Alaba inspirazio iturri bihurtu al da? Argia aldizkarian erditze momentuari buruzko bertsoak irakurtzeko aukera izan genuen...

Inspirazioan ez dut asko sinisten, sormena jarrera aktibo bat da, bila joan behar da, etorri ez da etortzen baina egia da nire alabak nire bizitzako ordu asko eta buruaren zati handi bat betetzen duela. Erditze momentua oso berezia izateaz gain, emakumeok kontzienteki erditzeko gure eskubidea politikoki aldarrikatu behar dugula iruditzen zait.

Bestetik, egia da umerik izango ez banu agian ez nintzela haur literaturan murgilduko. Helduen literaturan ataskatuta nagoenean, beste txip batean jarri eta umeen fantasiako mundu horretan sartzen naiz.

Emakumeen aldarrikapenak hizpide, datorren martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, Tolosan izango zaitugu. “Hau ez da kasualitatea” bertso-saioak lau emakumezko igoko ditu taula gainera.

Ez da ikuskizun finko bat, ez gara beti bertsolari berberak izaten, baina titulua ez da kasualitatea. Hau da, emakumez bakarrik osaturiko saioak oraindik inoiz ez dira kasualitatez sortzen. Gizonezkoek bakarrik osatuak asko izaten dira, nahiz eta egia izan geroz eta gutxiago direla, baina horiek kasualitatez sortzen dira...

Lau emakumezko saioak beti martxoaren 8aren edo azaroaren 25aren bueltan sortutakoak dira. Horren aurrean, “Hau ez da kasualitatea” nahita sortutako formatu bat da, gure artean kantatzeko aukera izateko. Modu bakarra dago gure bertsokera biltzeko: gure artean kantatzea.

“Emakumera batua” ez dela existitzen esaten dugu. Normalean neutrotzat ditugun umorea eta hitzak maskulinoak izaten dira. Horregatik, guk topatuko baldin badugu zein den gure kodigoa, publiko orokorarekin konpartitzen dugun kodigoa, ezinbestekoa da elkarrekin kantatzea.

Saioak musikatua dira, gitarrista batekin eta saxo jole batekin batera aritzen gara. Normalean oso saio umoretsuak ateratzen dira. Hala ere, bat-batekoak direnez, denetarik izaten dugu; umorea, gogoeta... ☺

Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisolasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informazioa Zerbitzua

Oinarritutako eta konpartitutako informazioa eta zerbitzuak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

HALCON
BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

errrotatxo
okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

Konfiantzan, Ikastola



Aurrematrikula

Epea
Urtamylaren 28tik otsailaren 8ra

Ordutegia
09:00-12:30 / 15:00-18:00

Anoetako Herri Ikastola

943 65 29 32
www.anoetakoherriikastola.net



Irurako Ikastola

943 69 43 74
www.irurakoikastola.net



Jesusen Bihotza Ikastola (Villabona/Zizurkil)

943 69 23 21
www.jesusenbihotzaikastola.com



Laskorain Ikastola (Tolosa)

943 69 71 22
www.laskorainikastola.net



Tolosako Inmakulada Ikastetxea

943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com



Uzturpe Ikastola (Ibarra)

943 67 12 99
www.uzturpe.net

